

Laburpena

Landa-elkarritzaketak

*Gure egunerokoa kolektiboki
eraldatzen*




**Helduak
Zabtzen**

matia
instituto



eab
Euskadiko
Administrazioen
Batzordea





Jarraian, landa-udalerrietako adineko pertsonentzako hoge
gizarte-zentroekin baino gehiagorekin buruturiko gogoeten
lehen analisien labor bat egiten da. Heuren hausnarketa,
bizipen eta ikuspegiak partekatu ahal izateko euskadi
mailako hiru lurralde historioetan barrena.

Aurkibidea

1. Landa-elkarrizketak, zifrak
2. Eztabaidaturiko gaiak
3. CSPMen rola
4. Jarduerak
5. Koordinazioa
6. Parte-hartzea eta erabakiak hartzea
7. Ekonomia
8. Biztanleria txikia eta asoziazionismoa
9. Eredua aldatzea

Landa-elkarrizketak zifretan

UDAL TEKNIKARIAK

2 emakume eta gizonezko 1.
Kanpezu (Araba)
Idiazabal (Gipuzkoa)
Segura/Mutiloa/Zegama/Zerain
(Gipuzkoa)




LANDA-ELKARRIZKETAK GIPUZKOA

7 emakume eta 9 gizonezko.
Idiazabal, Zerain, Legorreta,
Segura, Zegama, Zaldibi,
Ormaiztegi herriak bertaratu ziren.


LANDA-ELKARRIZKETAK ARABA

5 emakume eta 4 gizonezko.
Alegríaren ordezkari bat, Las
cuatro torres elkarteko
presidentea eta Kanpezuko
udalerrietako 7 pertsona.



LANDA-ELKARRIZKETAK BIZKAIA

4 emakume eta 9 gizonezko.
Zeanuri, Mendexa, Arantzazu,
Fruiz, Dima, Maruri, Arratzu, Ereño,
Ispaster, Igorre, Gizaburuaga,
Busturia herriak bertaratu ziren.



Landutako gaiak

Helduak Zabaltzen-en egindako aurretiazko ikerketa-lan osoan oinarrituta, landa-elkarrizketa bakoitzean gai hauek landu ziren luze eta zabal.

Adineko Gizarte Zentroen
rolak

Nola ikusten dira AGZak
jendartean?

AGZ jarduerak

Zeintzuk dira egiten diren
jarduera nagusiak?

Gobernantza

Zeintzuk dira partaidetza- eta
kudeaketa-eredu ohikoenak?

Ekonomia

Zein da AGZen errealitate
ekonomikoa? Eta beraien
ekipamenduen egoera?

Hiri-sakabanaketa

Nola eragiten du hiri-
sakabanaketak AGZetan?

Digitalizazioa

Nolakoa da digitalizazioa
AGZetan?

Eredu aldaketa

Aldaketa beharra ikusten da?
Nora aldatu? Zer
metodologiarekin?

AGZEN ROLAK

Euskal Autonomia Erkidegoan elkarrekin bizi diren Adinekoen Gizarte Zentroen definizio ezberdin hauek hauteman dira.

1.ROLA

Aisialdirako espazio bat, ondo pasatzeko eta jendearekin egoteko eremua. Aisialdi partekatuaren eta topalekuaren rola da gizartean zabalpen handiena duena. Topalekua izatea, gainera, zeregin estrategikoa du landatasunaren kasuan; izan ere, herri guneak sakabanatuago daude, baliabideak eta jarduerak behar dituzte beren etxeetatik atera eta espazio partekatuetan elkartzeko. Horrela, **landa-eremuetako adinekoentzako erronka handienetako bati erantzungo zaio rol honen bidez, egunerokoa, aisialdia eta topalekua eskainiz.**

2.ROLA

2. rol edo funtzio azpiratuagoa aurkitzen dugu baita ere, pixkana indarra hartzen ari dena; **zaintza komunitarioaren eta pertsonen bizitzari laguntzeko espazio gisara aurkezten dena.** Espazio komunitarioa, pertsonen bizitzako aro zehatz horretan laguntzeko rola duena hain zuzen ere.

Eredu-aldaketa ikusten da rol honetan, askoz ere parte-hartzaileagoa eta herri-eraldaketaruntz dijoana. Bertan hitz-gakoak aldatu egiten dira, ondo pasatzera eta jarduerak egitera ez ezik, transmisioa, belaunaldiartekotasuna eta parte-hartze komunitarioa bezalako hitzak ere ageriaz.

1. rola: aisialdi
partekatua eta
topalekua

2. rola: zaintza
komunitarioa eta
bizitzen
sostengarritasuna

Aipatu berri dugun 2.rol hura ordea, begirada eremu komunitarioan duena, ez da hedatuen dagoen ikuspegia AGZen barruan. Bizitzaren sostengu-espazio izatearen arbuioa antzeman izan da maiz. Errefuxa horren atzean elkarren zaintzaren edo laguntzaren beharra aitortzeko zailtasunak antzematen dira.

Zaintza beharrak bizitzako edozein unetan onartzea zaila egiten bazaigu ere, erretiro-aldi honetan are zailagoa izanen da, bizitza-aro honetan eta adinkeria dela eta, kulturalki zaintza menpekotasunaren karga negatiboarekin lotzen baita. Zehazki, zaintza autonomia ezaren ideiarekin lotzen da, gune instituzionalizatuekin (egoitzak, eguneko zentroak...).

Horregatik, kasu askotan ikusezin bihurtzen da AGZen rola, komunitateari laguntzeko eta elkar zaintzeko espazio gisa, eta azalean soilik aisialdi- eta jolas-zentro bat baino ez balitz bezala jarduten da.

3.ROLA: HERRI DINAMIZATZAILEA

Komunitate-rolaren barruan, oro har, herriaren dinamizatzailearen rola aitortzen da. Honek AGZak aktibismo-gune oso nabarmen gisara marrazten ditu. 3. rol honek batez ere Gipuzkoan du hedapena. AGZak eramaten dituen elkarteak eragile komunitario eta herrikoia dira herri hauetan, ia beti harreman eta koordinazio estua dutena gainerako elkarteekin.

JARDUEREN ZAINZA- GAITASUNAREN GUTXIESTEA

Pertsonen bizitza zaintzeko garaian AGZak eskaintzen dituen euskarriak ikusezinak direnez 1. rolean (aisia eta topalekua), antzematen da udalek zailtasunak dituztela bertan egiten diren potentzialitatea ikusterako garaian. Kartak jokoak, bingoak, ospakizunek edo otorduak, arriskuak (bakardadea, isolamendua...) dakartzaten egoerak prebenitzeko eta pertsonen bizitza babesteko ezinbesteko euskarriak dira landa eremuetan. Hauen gutxiestea ordea maiz ematen da herri zein hiri guneetan.

AGZen jarduerak

Ikus daitekeenez, alde handiak daude hiri-inguruneke eta landa-guneko AGZen artean.

01

Eraikinetik haratago dauden jarduerak

Jarduerak hedakorragoak dira, AGZen hormetan eta hormetatik kanpo egiten dira, batzuetan udalerriko hainbat lekutan, herriaren erdigunetik haratago joanaz. Askotan, udalerri batetik bestera mugituz baita ere.

02

Maiz, belaunaldiartekoak

Landa-inguruneetako jarduera asko belaunaldien artekoak izanen dira. Publiko guztientzat irekiak izan daitezten, elkartearen parte izan ala ez, zabaldu ohi dira. Hala ere, pertsona batzuentzako nolabaiteko mesfidantza ere jasotzen da zabalpen maila hauek egotearekiko. Nortasuna galduko omen dutela aipatzen baita.

03

Laguntza-premien aurrean setikorrak

Jarduerak pertsonen eta haien laguntza-beharrei egokitzeko alderdia dute. Horrek elikatzen du jolas- eta soziabilitate-funtzioa ez ezik, zaintza eta laguntza informalak ere ematen diren eremua izatearen ideia. Mugikortasun arazoei aurre egiten die, etxetik asko irteten ez diren bazkide zaharrek, radar lana eginez norbaitek denbora asko seinalerik eman gabe egoten den kasuetan...

04

Boluntariotza jarduera gisa

Leku oso zehatz batzuetan, boluntariotza ere jarduera gisa jasotzen da. Jarduera gisa zaintzak behar dituzten pertsonak artatzea dute helburu. Bakardadea borrokatuz, herri nortasuna mantenduz, auzolana eta elkar laguntzaren tradizioak sustatuz... Halako jarduerak maiz AGZek egiten duten gizarte-lana islatzen du.

AGZEN KOORDINAZIO PUBLIKOA



AGZEN PARTE HARTZE ETA ERABAKITZEA


Ikus daitekeenez, AGZen parte-hartzaile kulturaren ezaugarri nagusia binomio oso nabarmena du bere baitan: konprometituak eta konprometitu gabeak.

PARTE HARTZAILE KONPROMETITUAK

Batzordeetako kideak dira. Kasu gehienetan jardueren antolaketaren eta proiektuaren kudeaketaren pisu osoa dute. Horrek lan-karga eta erantzukizun handia eskatzen die eta zaildu egiten du beste pertsona batzuk rol horretan parte hartzera animatzera. Elkarre bakoitzaren batzar edo asanblada orokorraren bidez informazioa (jarduerak, kontabilitatea, obrak...) erakutsi eta zabaldu egiten da, kontraste eta ezbaidarako abagune handiegirik gabe.

Horrek guztiak elikatu egiten du "juntarik ez bada, AGZak desagertzen dira" pentsamoldeari. Parte hartze eredua aldatzeko abaguneak kontuan hartzen ez dituen ikusmoldea dugu.

Modu inkontzientean, partaidetza-eredu bat partekatzen dute: agortu harte, erre arte lanean dagoenaren partaidetzaarena. Honek konpromiso-ziklo luze batzuetara darama, batez beste 10 urtez jarraitukoak.




PARTE HARTZAILE EZ KONPROMETITUAK

Elkarteko bazkideak dira, eta ez dute batzarretan edo juntetan parte hartzen, ez dute antolatzen, baina parte-hartze handia dute AGZetan egiten diren jardueretan. Gehienek parte hartzearekiko mesfidantza dute, inplikazio oso zorrotzak eta denboran luzarokoak izatearen beldur direlako.

Ikus daitekeenez, gehienetan norbaitek parte hartzera gonbidatzen badu, erantzuna ez da izaten "ez zait gustatzen" edo "ez dut interesik", baizik eta "ez dut parte hartzen bertan sartzeko beldurragatik".

Hargatik, ondorioztatzen da arazoaren muina ez dagoela parte-hartze eredu horretan, baizik eta antolakuntzaren eta kudeaketaren filosofian eta konpromiso mailan. Dena ala ezerrez logika horrek zalantza edo oztopoa indartzen du. Hargatik, hausnartzen da konpromiso maila ezberdineen arteko espazioak sortzeko aukerarik izango ba ote den profil berri hauek erakartzerako garaian. Hau da, lan taldeak, iraungitze-data duten erantzukizunak, lekukotza ezberdinak dituzten rolak bilatzean...

Ekonomia



Biztanleria baxua eta elkartegintza

Aztertutako testuinguruetan, hiri-sakabanatzearen arazoa elkartegintzaren oztopoetako bat da landa eremuetan. Izan ere nola egingo dute biztanleria baxua eta dispertsio urbanoa duten herrietan elkartegintza sendoa eraiki eta mantentzeko?

Hiri-dispertsio zabala izanik, erronka hau planteatzen da: taxi bidaiez gain, errutinak eta jarduerak egituratu behar ditugu, jendeak ohiturak sor ditzan eta arrazoiak izan ditzan baserrietatik/etxeetatik ateratzeko eta topagune den eremuren batera mugitzeko.

Ekipamenduak funtsezko guneak dira pertsonen sakabanaketari aurre egiteko eta denboran zehar topaleku egonkorak sortzeko.

ERRUTINA FALTAREN BAKARDADEA

Ikusten denez, udalerri askok ez dute lokal propiorik eta udalari baimenak eskatu behar dizkiote partekatutako beste baliabide batzuk erabili ahal izateko.

Batzuetan, udalaren baliabide falta dela eta, AGZen ekipamenduak birplanteatu ohi dira, udalerriko beste premia batzuk hasebetetzeko.

Kasu horietan, baliabide publikoen gabezia horrek boluntarioritza bidezko baliabideen kudeaketa bat eskatzen du, AGZgisa jarduten duen baliabide komunitarioa sortuaz, halanola taberna, elkarte, txoko, eta abarrak Adinekoen Gizarte Zentru bilakatuaz.

1

Erakunde gehienak **ziklo-aldaketaren eta belaunaldi edo erreleboaren garaian daudela ikus daiteke.**

Aldatu ez direnek batzordean urte asko daramatzaten ordezkariak dituzte, 10 urtetik gorako zikloekin eta partaidetza ahituekin. Beste kasu batzuetan bidegurutze batera iristen ari dira: errelebo faltagatik desagertzen dira edota birfundatu egiten dira. Bigarrenaren kasuan batzordean parte hartu nahi duten pertsona berriak aktiboki bilatu behar direlarik. Oraingoz, kasu gehienetan antolaketa eta partaidetza modu berriak bilatzeko aukera ez dira baloratu izan.

Eredu eta metodologia eraldaketa

2

Adineko Gizarte Zentruetara sartzen ari diren adineko pertsonak eredu berri bat dakartzate eta eredu zaharraren eta berriaren arteko talkak sortu izan dira kasu gehienetan. Bien arteko kontrasteari buruz galdetu denean, esan da eredu tradizionalak izaera pribatua duela, klub pribatu estilokoa eta, beraz, baztertzailea elkarteko kide ez diren guztientzat.

3

Adineko pertsonen profil berriei buruz hitz egin denetan, profil tradizionalenekin alderatzeratu izan da hura. Azpimarratu da adinekoen profil berriak askoz prestatuago daudela ikasketei eta bizipen zein bizi-hausnarketei dagokienez. Horrek zaildu egiten du AGZek profil berri horiei erantzutea, **belaunaldien eta bizimoduen arteko arrakala handia baita.**

4

Lan mundutik erretiratu aurreko belaunaldiak atsedean, gozamen eta aisialdiko bizitzako aro batera iristen zirenaren ikusmoldea zuten. Horrek, nahi izanez gero, Adineko Gizarte Zentruetan eta haien junturetan iraultzeko erabateko prestasunera eramaten zuen.

Egungo belaunaldiak zahartze aktiboaren filosofia irudikatzen duen belaunaldiaren parte dira ordea. Jarduera, nahi eta konpromiso ugari dituen herritarra dugu eta, beraz, erretiroaren ondoren garapen pertsonalaren denborak garrantzia handia hartzen du bere egunerokoan. Bere bizi-denbora ez da entretenitu edo bete beharreko denbora huts bat, baizik eta bete beharreko bizi-proiektu askoko denbora mamitsu bat.

Ondorioz, behaketan zehar antzematen da azken profil honek ez duela AGZren jardueretan buru-belarri parte hartu nahi; gauza gehiago dituztela buruan, hain zuzen ere. Horren ondorioz, belaunaldi berri horiek denbora laburragoa izango dute partaidetza kontuetarako.

Orain, bizitzako uneak markatuko du AGZetan sartzeko epea, ez aldiz hainbeste erretiro-adina. Hori dela eta, elkarteetan berandu sartu diren profilak dira eta zailtasunak izango dituzte adineko pertsonen belaunaldi berriak AGZen proiektuan inplikaturik senti daitezen.

5

Juntetan ez dauden pertsonen erantzukizunetan gehiago parte hartzea eskatzen da. Baina ez da identifikatzen nola gauzatu eskakizun hura. Hori dela eta, lan-metodologia berriak bilatzen ari dira AGZetan. Hainbat modutan lan egiteko ideien barruan, elkarte batzuek elkarteetako **bazkideak gehiago ezagutzearen garrantzia jasotzen dute**. "Zenbaki bat besterik ez izatea" ideiatik ateratzeko eta AGZri ekarpenak egin diezazkioketen gaitasun eta interes guztiekin ikusteko.

6

Oro har, **Adinekoen Gizarte Zentruan diren adinekoen profil desberdinen bizikidetzaz hitz egiten da.** Belaunaldien arteko talka hura bi kolektiboetara murriztu genezake; karta-belaunaldiaren eta hitzaldiak eta aktibismoa sortzearen arteko binomiora. AGZak planteatzerako orduan bi nahiak uztartzeko beharra eta estrategien nahia azpimarratu da.

8

Oro har, antzematen da ereduak aldatzen saiatzen ari diren kasuetan ohikoa dela deserosotasun eta gatazka sententzioa egotea jardueren harira baita zentruak ikusteko moduen artean ere.

Beraz, ereduaren aldaketa ez da gatazka eta desadostasunik gabekoa izango.

7

Hala ere, ereduak aldatzeko ideia hori ez dago guztiz bateratua, ezta itsuraz homogeneoa ere. Zenbaiten ustez eredu-aldaketa batzarretako edo juntetako belaunaldi-aldaketari dagokio, eta aldaketa horrekin gainerako aldaketak iritsiko direla esan nahi dute. Beste batzuek, berriz, udalaren parte-hartze handiagoa azpimarratzen dute aldaketa gako nagusi modura.



Eraldaketarako pilotajeen metodologiari dagokionez, lurralde guztiek uste dute denboran zertxobait laburragoa izan behar duen metodologia behar udela izan. Hausnarketak, herri mailako ekintzak eta profil desberdineko topaketak (teknikoa, politikoa, elkarteko pertsonak, batzordeko kideak...) partekatzeak saioak izatea dela egokiena dio gehiengoak. AGZ bakoitzaren denborak errespetatuz eta prozesuan jendea ito gabe.